Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko irailaren 19a, osteguna — 181 — Jueves, a 19 de septiembre de 2024

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### DIPUTATU NAGUSIA

*3/2024 Foru Araua, irailaren 13koa, Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa arautzen duen azaroaren 23ko 15/1994 Foru Araua aldatzekoa.*

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onetsi dutela «3/2024 Foru Araua, irailaren 13koa, Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa arautzen duen azaroaren 23ko 15/1994 Foru Araua aldatzekoa»; eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2024ko irailaren 13a.—Eider Mendoza Larrañaga, diputatu nagusia. (6655)

HITZAURREA

Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa (UFFF) arautzen duen 15/1994 Foru Arauaren 3.1.a) artikuluak ezartzen du funtsaren % 1,2 1.100 biztanletik beherako udalerrien artean banatu beharko dela, baita horietako bakoitzari kuota finko bat esleitu ere.

Kuota finko horren helburua da baliabide gehigarriak bermatzea tamaina txikiko udalerri izateak dakarren zailtasunari eta egoera bereziari aurre egiteko. 1994. urteaz geroztik, alabaina, kuota gehigarri hori ez da eguneratu.

Hala, 2024ko aurrekontuko datuak aztertuta, ondorioztatzen da zenbateko finko horiengatik 2.091.522,12 euroko finantzaketa bideratzen zaiela 1.100 biztanletik beherako udalei, hau da, urte horretako UFFFaren % 0,32, eta ez % 1,2. Gainera, diferentzia hori handituz doa urtetik urtera, UFFFaren zuzkidura ere handitzen doan neurrian.

Foru arauaren aldaketaren bitartez, 1.100 biztanletik beherako udalei UFFF osoaren % 1,2 bermatuko zaie, eta zenbateko hori haien artean banatuko da zati berdinetan.

Modu horretan, bidea ematen zaie Eudelen Gipuzkoako Lurralde Batzordeak 2024ko urtarrilaren 26an eta Gipuzkoako Finantza Kontseiluak 2024ko martxoaren 22an egindako eskaerei.

Beraz, neurri honen oinarrian foru aldundiaren eta udalen arteko adostasun eta elkarlana daude, azken urteotan udal txikienek egindako eskaerari erantzuten baitzaio, haien etorkizunaren alde eginez. Diru banaketa egokiago bat jasoko dute aurrerantzean, haien egoera bereziari aurre egiteko eta herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuak indartzeko.

Foru arauak artikulu bakarra du, baita azken xedapen bat ere.

Artikulu bakarra, bere aldetik, hiru apartatutan banatzen da. Lehenengoak 15/1994 Foru Arauaren 3.1 artikuluaren a) eta b) letrak aldatzen ditu: a) letraren aldaketak, lehen adierazi den

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DIPUTADA GENERAL

*Norma Foral 3/2024, de 13 de septiembre, de modificación de la Norma Foral 15/1994, de 23 de noviembre, reguladora del Fondo Foral de Financiación Municipal.*

LA DIPUTADA GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 3/2024, de 13 de septiembre, de modificación de la Norma Foral 15/1994, de 23 de noviembre, reguladora del Fondo Foral de Financiación Municipal», a los efectos de que todos los ciudadanos y ciudadanas, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación, la guarden y hagan guardarla.

San Sebastián, a 13 de septiembre de 2024.—La diputada general, Eider Mendoza Larrañaga. (6655)

PREÁMBULO

El artículo 3.1.a) de la Norma Foral 15/1994, reguladora del Fondo Foral de Financiación Municipal (FFFM), establece la obligación de repartir el 1,2 % del fondo entre los municipios de menos de 1.100 habitantes, asignando a cada uno de ellos una cuota fija.

El objeto de esta cuota fija es garantizar recursos adicionales para hacer frente a la dificultad y especial situación que supone ser un municipio pequeño. Esta cuota adicional, sin embargo, no se ha actualizado desde 1994.

Así, del análisis de los datos del presupuesto de 2024, se desprende que por estas cuotas fijas se destina a los municipios de menos de 1.100 habitantes una financiación de 2.091.522,12 euros, lo que supone un 0,32 % del FFFM de ese año y no un 1,2 %. Además, esta diferencia va en aumento año tras año, a medida que aumenta la dotación del FFFM.

Mediante la modificación de la norma foral se garantizará a los municipios de menos de 1.100 habitantes el 1,2 % del total del FFFM, cantidad que se distribuirá entre ellos a partes iguales.

De este modo, se da cauce a las solicitudes formuladas por la Comisión Territorial de Gipuzkoa de Eudel, el 26 de enero de 2024, y por el Consejo Territorial de Finanzas de Gipuzkoa, el 22 de marzo de 2024.

Por lo tanto, esta medida se basa en el consenso y la colaboración entre la diputación foral y los municipios, atendiendo a la demanda realizada en los últimos años por aquellos más pequeños, y haciendo una apuesta por su futuro. En adelante, recibirán un reparto más adecuado para hacer frente a su particular situación y reforzar los servicios que ofrecen a su ciudadanía.

La norma foral se estructura en un artículo único y una disposición final.

El artículo único, a su vez, se estructura en tres apartados. El primero de ellos modifica las letras a) y b) del artículo 3.1 de la Norma Foral 15/1994: la modificación de la letra a) tiene por

EK\CV GAO-I-2024-06655

bezala, xede du 1.100 biztanletik beherako udalerriei UFFFaren % 1,2ko finantzaketa bermatzea, guztien artean zati berdinetan banatuta; b) letraren aldaketa teknikoa da, eta haren edukia a) letraren formulazio berrira egokitzea du helburu.

Foru arauaren artikulu bakarraren bigarren apartatuak ere izaera teknikoa du, eta urriaren 7ko 4/2021 Legera egokitzeko egiten da (lege horren bitartez ezarri da zer metodologia aplikatuko den 2022-2026 aldian baliabideak banatzeko eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko). Lege horrek ekarritako aldaketetako bat DFg kenkaria kentzea izan zen, zeina ordura arteko metodologian erabiltzen baitzen lurraldeak Ekonomia Itunetik erabilgarri izango zituen baliabideak kalkulatzeko. Hortaz, foru arau honen artikulu bakarreko bigarren apartatuaren bidez ezabatzen da, halaber, DFg kenkari horri buruz lehen zegoen aipamena, gaur egun ez baitago halakorik.

Foru arau honen artikulu bakarraren hirugarren apartatuak ere izaera teknikoa du, gaur egun indarrean ez dagoen arau baten aipamena eguneratzeko.

Azken xedapen bakarrak foru araua noiz jarriko den indarrean arautzen du.

*Artikulu bakarra. Azaroaren 23ko 15/1994 Foru Araua, Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa arautzen duena, aldatzea.*

Azaroaren 23ko 15/1994 Foru Araua, Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa arautzen duena, honela aldatuko da:

*Bat.* 3. artikuluaren 1. apartatuaren a) eta b) letrak honela geratzen dira idatzita:

«a) 100eko 1,2 zati berdinetan banatuko da 1.100 biztanle bitarteko udalerrien artean.

b) 100eko 90 biztanleen kuota gisa banatuko da udalerrien zuzenbidezko biztanleriaren zuzeneko proportzioan. Biztanleen kuotan beharrezko egokitzapenak egingo dira a) letrako kuota gehi b) letrako kuota kontzeptupean esleitutakoa gehitzeko. Era horretan, udalerri batek ezingo du kontzeptu berdinengatik bera baino biztanle gutxiago dituen aurreko udalerriak baino zenbateko gutxiago jaso.»

*Bi.* 6. artikuluaren 2. apartatua honela geratzen da idatzita:

«2. Hurrengo ekitaldiko otsailean behin betiko likidazioa egingo da Euskal Autonomia Erkidegoari egindako ekarpenen behin betiko likidazioan oinarrituta.»

*Hiru.* 7. artikuluaren 1. apartatua honela geratzen da idatzita:

«1. Udalak Finantzatzeko Foru Funtsaren aurrerakinak udalei emateko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauaren 92. artikuluak dioenari jarraituko zaio.»

*Azken xedapena. Indarrean jartzea.*

Foru arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Hala ere, artikulu bakarraren lehen apartatua 2025eko ekitalditik aurrera aplikatuko da.

objeto, tal como se ha señalado anteriormente, garantizar a los municipios de menos de 1.100 habitantes, una financiación equivalente al 1,2 % del FFFM, repartida a partes iguales entre todos ellos; la modificación de la letra b) tiene carácter técnico, para adaptarla a la nueva formulación de la letra a).

El apartado dos del artículo único de la norma foral tiene también un carácter técnico, para adecuarse a la Ley 4/2021, de 7 de octubre, de metodología de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones de las diputaciones forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable al periodo 2022-2026. Una de las modificaciones introducidas por dicha ley consistió en la supresión de la deducción DFg utilizada por la metodología anteriormente vigente para calcular los recursos provenientes del Concierto Económico disponibles para el territorio. Por tanto, mediante el apartado dos del artículo único de esta norma foral se elimina asimismo la referencia anterior a dicha deducción DFg, actualmente inexistente.

También el apartado tres del artículo único de esta norma foral tiene carácter técnico para actualizar una referencia normativa hoy día no vigente.

La disposición final única regula la entrada en vigor de la norma foral.

*Artículo único. Modificación de la Norma Foral 15/1994, de 23 de noviembre, reguladora del Fondo Foral de Financiación Municipal.*

La Norma Foral 15/1994, de 23 de noviembre, reguladora del Fondo Foral de Financiación Municipal, se modifica en los siguientes términos.

*Uno.* Las letras a) y b) del apartado 1 del artículo 3 quedan redactadas como sigue:

«a) El 1,2 por 100 se distribuirá a partes iguales entre los municipios de hasta 1.100 habitantes.

b) El 90 por 100 se distribuirá como cuota de población en proporción directa a los habitantes de derecho de los municipios. Se realizarán los ajustes necesarios en la cuota de población, con destino a incrementar la asignación en concepto de cuota de la letra a) más cuota de la letra b), para que ningún municipio pueda percibir por idénticos conceptos una cantidad menor a su inmediato inferior en número de habitantes.»

*Dos.* El apartado 2 de artículo 6 queda redactado como sigue:

«2. En el mes de febrero del ejercicio siguiente se practicará la liquidación definitiva, en base a la liquidación definitiva de las aportaciones a la Comunidad Autónoma del País Vasco.»

*Tres.* El apartado 1 de artículo 7 queda redactado como sigue:

«1. La concesión de anticipos del Fondo Foral de Financiación Municipal a los municipios se regirá por lo dispuesto en el artículo 92 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa.»

*Disposición final. Entrada en vigor.*

La presente norma foral entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. No obstante, el apartado uno del artículo único se aplicará a partir del ejercicio 2025.

EK\CV GAO-I-2024-06655